

HITZ BITAN

ATLETISMOA. Alar Sevillano gidaria larri dago

Irantzu Egiguren atleta eta Jose Manuel Caballero entrenatzailea hil dira Palentzian, auto istripuan

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Irantzu Egiguren atleta tolosarra eta Jose Manuel Caballero entrenatzaile ordiziarra hil ziren atzo, auto istripuan. Egiguren eta Caballero Ourense (Galizia) jokatu behar ziren Espainiako Ibilketa Txapelketetan parte hartzerantz zihoazen, auto istripua izan zutenean. Ezbeharra goizeko 8:00etan izan zen, Castromochon (Palentzia, Espainia), Egiguren, Caballero eta Alar Sevillano —Egigurenen mutil-laguna— zihoazen autoa errepidetik atera eta suak hartu zutenean. Egiguren eta Caballero istripua izan eta berehala hil ziren. Sevillano —autoko gidaria—, aldiz, larri zauritu zen, eta

Palentziako Rio Carrion Ospitalera eraman zuten.

Irantzu Egigurenek 19 urte zituen. Tolosarrak iragan urtarilaren 19an eta 20an Kataluniako Ibilketa Txapelketetan parte hartu zuen, eta Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu zuen, gutxieneko marka lortuta. 10 kilometroak, ordubete, minutu bat eta 54 segundotan egin zituen Irantzu Egigurenek.

Ordizia taldeko eratzaleetako bat, Josetxo Imazekin batera

Jose Manuel Caballero, aldiz, 58 urte zituen, eta aspalditik zebilen Gipuzkoako eta Ordiziako atletismoan buru-belarri lan egiten. Caballero Ordiziako Atletismoko taldeko eratzalee-



AITOR ELDUAIEN / EGUNERO

Egiguren 13 zenbakidun elastikoarekin, eta Sevillano 9arekin, Tolosako Herri Lasterketan, urriaren 12an.

tako bat izan zen, Josetxo Imaz zenarekin batera. Imaz ere hala xe hil zen, errepidean, auto istripu batean. Caballero, halaber, Espainiako Ibilketa probako ordezkari moduan zebilen azken urteetan. Horrexegatik zihoan

Ourensera, atzo eta gaur Galiziako hiri horretan jokatuiko diren Espainiako Txapelketetara.

Atzoko istripuarekin beltzez jantzi dira Espainiako Txapelketak, bertara zihoazen atleta bat eta entrenatzaile bat zendu

baitziren atzo. Kirol arloari dagokionez, Mikel Odriozola bertan izango da. Donostiarrak saso bikainean dago, eta Kataluniako Txapelketetan lortutako 10 kilometroko Espainiako marka da horren adibide.

TXIRRINDULARITZA

Andaluziako Itzulia hasiko da gaur, Euskaltel eta Labarcaren parte-hartzearekin

Andaluziako 40. Itzulia jokatu da gaurtik hilaren 16a bitartean. Txirrindulariek 857,2 kilometro egin beharko dituzte, bost saiotan banatuak. Lehen etapa gaur jokatu da: Kordoba-Kordoba, 179,6 kilometrokoa. Euskaltel-Euskadi eta Labarca-2 Baque euskal taldeak irteeran izango dira.

ATLETISMOA

Chambers britainiarra eta Ayhan turkiarra 2002ko Europako atleta onenak

Dwain Chambers britainiarra eta Sureyya Ayhan turkiarra izendatu dituzte 2002ko Europako atleta onenak. Chambersek urrea eskuratu zuen Municheko Europako Txapelketetako 100 metroetan. Ayhanak ere urrea eskuratu zuen Munichen, baina 1.500 metroetan, Gabriella Szabo errumaniarraren aurretik.

HONDARTZA-FUTBOLA

Munduko Txapelketa hasiko da gaur Copacabanen, Brasilgo selekzioa favorito nagusia dela

Hondartza-futboleko VIII. Munduko Txapelketa hasiko da gaur Copacabanako (Brasilgo) hondartzetan. Zortzi selekziok hartuko dute parte gaurtik hilaren 23a bitartean: A multzoan, Espainia, Brasil, AEB eta Italia ariko dira; eta B multzoan, Portugal, Uruguai, Frantzia eta Japonia. Etxeko taldea da favorito nagusia, 2001ekoa izan ezik jokatu diren Munduko Txapelketa guztiak irabazi baititu. Orduan, Portugal izan zen garaile.

ESKIA. Munduko Txapelketako eslalom proban nagusitu da kroaziarra



GAETAN BALLY / EPA

Kostelicek bere bigarren urrea irabazi du Saint Moritzen

Janica Kostelic eskiatzaile kroaziarra bere bigarren urrezko domina jantzi zuen atzo Saint Moritzko Munduko Txapelketetan, emakumezkoen eslalom proba irabazi ondoren. Marlies Schild eta Nicole Hosp austriarrak sailkatu ziren haren atzetik, zilarrezko eta brontzezko dominak eskuratuta. Kostelicek konbinatuan ere irabazi zuen urrea, iragan astelehenean.

ERRUGBIA

Munduko Kopatik kanpo utzi dute Errusia, hiru jokalaririk hiru hegafrikarrek jokatzegatik

Nazioarteko Errugbi Federazioak (IRB) Munduko Kopatik kanpo utzi du Errusiako selekzioa, iragan urrian eta azaroan Espainiaren aurka jokatuak kanporaketan fitxa ez zuten Hegoafrikako hiru jokalarirekin aritzeagatik. Zigorren ondorioz, Espainiak beteko du Errusiaren lekua Munduko Kopako sailkapen ligaxkan.

BELA

'Alinghi'-k irabazi du Amerika Kopako lehen estropada, 'Team New Zealand'-ek arazoengatik proba utzi ostean

Alinghi ontzi suitzarrak Amerika Kopako lehen estropada irabazi zuen atzo Aucklandeko badian. Alinghi-ren aurkari Team New Zealand ontzi zeelandaberritarrek estropada utzi behar izan zuen arazo teknikoengatik. Bigarren estropada gaur jokatu da. Irabaziz gero, itsasoa ez duen lehen herrialdeko ontzia izango litzateke Alinghi.

NBA

Historian etxetik kanpo zazpi lehia jarraian irabazi dituen lehen taldea bilakatu da San Antonio

NBAren historian etxetik kanpo zazpi lehia jarraian irabazi dituen lehen taldea bilakatu zen atzo San Antonio Spurs, Los Angeles Lakersi 103-95 irabazita. Tim Duncan pibotaren eta Tony Parker joko antolatzailearen lana erabakigarria izan zen San Antoniok irabazteko: 28 puntu eta 20 errebote lortu zituen lehenak; 24 puntu eta sei asistentzia bigarrenak. Los Angeles Lakersen, Kobe Bryant izan zen beste behin onena, 44 puntu lortuta.